



Irakats ahalmena murrizteko aukerak: adibideak

[Klase-pasiboak eta Gizarte Segurantza erregimenen arabera erretiroa hartzeko araudiak ez badira aldatzen eta pertsonak kotizazio baldintzak betetzen baditu]

- **1. adibidea**

MUFACEkoa –klase pasiboak– den IRI batek 59 urte baditu 2022ko abuztuaren 31n (behar beste urte izanda kotizatuta) eta erretiroa 65 urtera heltzean hartu nahi badu, irakats ahalmena murriztu ahal izango du erretiroa hartu baino lehenago:

- Erretiroa hartzeko eguna: 2028ko abuztuaren 31
- Irakats ahalmena honela murriztuko du:
 - % 40 2027/2028 ikasturtean
 - % 30 2026/2027 ikasturtean
 - % 20 2025/2026 ikasturtean
 - % 10 2024/2025 ikasturtean

- **2. adibidea**

MUFACEkoa –klase pasiboak– den IRI batek 60 urte egingo baditu 2023ko irailean (behar beste urte izanda kotizatuta) eta erretiroa adin horretara heltzean hartu nahi badu, aukera hauek ditu:

- Erretiroa 60 urte egiten dituen egunean hartzea, murrizketarik gabe.
- Erretiroa 2024ko abuztuaren 31n hartzea, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2023/2024 ikasturtean

- **3. adibidea**

MUFACEkoa –klase pasiboak– den IRI batek 60 urte egin bazituen 2022ko abuztuaren 31n (behar beste urte izanda kotizatuta), aukera hauek ditu beharrezkoak diren kotizazio urteetara heltzen bada:

- Erretiroa nahi duen egunean hartzea, murrizketarik gabe. Halakoetan, interesatuak 3 hilabete lehenago jarri beharko ditu jakinaren gainean saila eta IRIen zerbitzua, beharrezko tramiteak egin ditzaten.
- Erretiroa hartzea irakats ahalmena murriztuta izanda (eskaera egin ondoren). Hauek dira aukerak:
 - Erretiroa 2024ko abuztuaren 31n hartu nahi badu, % 40ko murrizketa 2023/2024 ikasturtean.
 - Erretiroa 2025eko abuztuaren 31n hartu nahi badu, % 40ko murrizketa 2024/2025 ikasturtean eta % 30ekoa 2023/2024 ikasturtean.
 - Erretiroa 2026ko abuztuaren 31n hartu nahi badu, % 40ko murrizketa 2025/2026 ikasturtean, % 30ekoa 2024/2025 ikasturtean eta % 20koa 2023/2024 ikasturtean.
 - Erretiroa 2027ko abuztuaren 31n hartu nahi badu, % 40ko murrizketa 2026/2027 ikasturtean, % 30ekoa 2025/2026



ikasturtean, % 20koa 2024/2025 ikasturtean eta % 10koa 2023/2024 ikasturtean.

- Erretiroa 2027ko abuztuaren 31 baino beranduago hartu nahi badu, ezingo du murriztu irakats ahalmena.

- **4. adibidea**

Gizarte Segurantzako erregimeneko irakasle eta ikertzaile kotizatzaile batek (kotizazioan behar besteko antzintasuna duenak) 65 urte betetzen baditu 2025eko urtarrilean (62 urte ditu 2022ko abuztuaren 31n), honako hau egin dezake:

- Erretiroa nahi duen egunean hartzea, murrizketarik gabe, Gizarte Segurantzaren arautegiak uzten dion unetik 2030eko abuztuaren 31ra arte, gutxien dela 3 hilabeteko tartearekin abisatzea bere sailean eta irakasle eta ikertzaileen zerbitzuan, egin beharreko izapideak egin ditzaten.
- Erretiroa 2024ko abuztuaren 31n hartzea, 64 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2023/2024 ikasturtean
- Erretiroa 2025eko abuztuaren 31n hartzea, 65 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2024/2025 ikasturtean
 - % 30 2023/2024 ikasturtean
- Erretiroa 2026ko abuztuaren 31n hartzea, 66 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2025/2026 ikasturtean
 - % 30 2024/2025 ikasturtean
 - % 20 2023/2024 ikasturtean
- Erretiroa 2027ko abuztuaren 31n hartzea, 67 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2026/2027 ikasturtean
 - % 30 2025/2026 ikasturtean
 - % 20 2024/2025 ikasturtean
 - % 10 2023/2024 ikasturtean

- **5. adibidea**

Gizarte Segurantzako erregimeneko irakasle eta ikertzaile kotizatzaile batek (kotizazioan behar besteko antzintasuna duenak) 63 urte 2024ko maiatzean betetzen baditu (61 urte ditu 2022ko abuztuaren 31n), honako aukera hauek dauzka:

- Erretiroa nahi duen egunean hartzea, irakats ahalmenaren murrizketarik gabe, Gizarte Segurantzaren arautegiak uzten dion unetik 2031ko abuztuaren 31ra arte, gutxien dela 3 hilabeteko



tartearekin abisatzea bere sailean eta irakasle eta ikertzaileen zerbitzuan, egin beharreko izapideak egin ditzaten.

- Erretiroa 2024ko abuztuaren 31n hartzea, 63 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:

- % 40 2023/2024 ikasturtean

- **6. adibidea**

Gizarte Segurantzako erregimeneko irakasle eta ikertzaile kotizatzaile batek (kotizazioan behar besteko antzintasuna duenak) 65 urte betetzen baditu 2027ko lehenengo seihilekoan (60 urte ditu 2022ko abuztuaren 31n), honako aukera hauek dauzka:

- Erretiroa nahi duen egunean hartzea, murrizketarik gabe, Gizarte Segurantzaren arautegiak uzten dion unetik 2032ko abuztuaren 31ra arte, gutxien dela 3 hilabeteko tartearekin abisatzea bere sailean eta irakasle eta ikertzaileen zerbitzuan, egin beharreko izapideak egin ditzaten.
- Erretiroa 2029ko abuztuaren 31n hartzea, 67 urte dituela, irakats ahalmena honela murriztuta:
 - % 40 2028/2029 ikasturtean
 - % 30 2027/2028 ikasturtean
 - % 20 2026/2027 ikasturtean
 - % 10 2025/2026 ikasturtean